

Abbadie jaunari euskariarrak zor diogun eskerra.¹



Bizi bedi
euskera maite duana.

KANTACHOA.

Euskariarrak gaingiro gaude,
gaur euskaldunak poz gera,
zeren ikusten degun indartzen
nola ari dan euskera;
biotz osotik maite dezagun
aurreko zanaen izkera,
bestela geren aitareen seme
onak izango ezgera.

Jaiki zaitezte euskara billa
Arabatar ta Naparrak,
jaiki Bizkaitar prestubak eta
Franzes euskaldun azkarrak;
jaikiko gera gu ere zuen
anaya Gipuzkoatarak,
ama onari lagundutzero
beretzen lengo indarrak.

Ekaizte charrak igaro ditu,
etsai asko du izandu,
miñez luzaro da oso triste
ama euskera egondu;
bañan azkenak eman ez ditzan
nola baitzaion lagundu,
gaitzak emanik jira, eriyak
oso onera eman du.

Aurrera lasai pausotu dezan
bideak zaizka zabaltzen,
ikusten gaude lengo moduban
ezdijoala au galtzen;
ezpada atzo sartutzen etzan
lekutan dala gaur sartzen,
sustrai berriyak boteaz ari-
dala indarra artutzen.

(1) Composicion señalada con *accèsit* en las fiestas euskaras celebradas en Durango, en Julio de 1886.

Lengo denboran izan zituben
 seme on maite zutenak,
 eta oraindik ere baditu
 ezbaitziran ta ill denak:
 gaur nai lirake argitaratu
 mereziera batenak
 nor dan jakin ta maita dezaten
 euskera maite dutenak.

Aizeari gaur diot ematen
 nere kantacho berriya,
 alde denetan banatu dezan
 nor dan Abbadie aundiya;
 kantu onekin onraz apaindu
 nai nuke onragarriya,
 berak bertutez dakielako
 onratzen Euskal-erriya.

Ama Euskerak pena geiegiz
 etzitzan eman azkenak,
 Jaun au zitzaion asi billatzen
 sendagairikan onenak,
 animan gorde zitzaken kantu
 bozgariotzen zutenak,
 beren balsamuz gozo-zeizkaten
 zeuzkan naigabe ta penak.

Urte denetan zizkan amari
 seme trobarik aurkesten,
 eta konsola zezaten bere
 oñetan jartzen kantatzen;
 ala euskara liraz omenak
 zaizkatenean kontatzen,
 biotz estuba lasaiturikan,
 indar berritan zan jartzen.

Frantziyan zuben lenen aldatu
 belar on oien aziya,
 eta ondoren Españian du
 lurgaintzen beren graziya;
 bertute ontaz luzeairazirik
 ama onari biziya,
 goitutzen digu kantuzko lore
 ederrez apain janziya.

Laguntzalle on asko zaiozka
 ari jaun oni azaltzen,
 ezlutekenak nai euskararik
 ikusi gaizki ta galtzen;
 eta guzien laguntzaz nola
 zaizkan egoak zabaltzen,
 askok illtzea uste zutena
 ikusiko da salbatzen.

Abbadie jaunak euskera naiya
 dakarrelarik barrenen,
 lengo usantz ta oitura onak
 ere nai ditu nola len;
 eta berakgan maitetasun au
 nola berekin dakarren,
 gordetzen ditu Frantzian eta
 gordetzen ari da emen.

Euskariarrak izanik lenaz
 gauza onaren jabeak,
 oetakoak asko dirade
 gertatzen jorik lur beak;
 eta jakiñik gaurko oiturak
 ezdiradela obeak,
 Abbadie jaunak nai ditu lengo
 zarrak gaizkintza gabeak.


Lur maite onek izanik lenaz
kondari mirestgarriya
ez deiogun au ankapetuta
para geroko berriya;
asaba zarrakgandik baitauka
onra chit goiengarriya,
zeren bekaitzagarriya¹ beti
izan dan Euskal-erriya.

Nola izkuntza ala usari
eta oitura zarlenak,
euskariaren mingarri dira
betazbetubak egonak;
bañan Abbadie jaunak gozoro
bulardezturik ain onak,
berriro gaintzen datoz ta jaun au
maitatzen degu dianak.

Eska leialez askotan diyo
euskaldunari lagundu,
euskariarren onean zenbait
neke ta kastu egin du;
lur maite au chit maite dubela
progarik aski eman du;
ala beraren seme leialen
eskerra beregana du.

Ongi jarraitu izan dalako
askorekin ta nerekin,
nik ere onen truk esker onak
nai dizkat eman trobakin;
biotzetikan musu bat diot
biraltzen kantu onekin,
maitetasun au bizi dan arte
zaitiraun² dezan berekin.

RAMON ARTOLA.



(1) Envidiable.

(2) Conservar.